# I. ERANSKINA: KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA

## I.- KONTRATAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO JOKABIDE KODEAREN HELBURUA, IZAERA, APLIKAZIO EREMUA ETA IRIZPIDE OROKORRAK

### 1.- Helburua

1.1.- Kode honek kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen ditu, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzaileentzat.

1.2.- Balio, printzipio eta arau horiek betetze arduratsua dela bide, foru kargu publikoek eta langile publikoek, baita enpresa eta entitate lizitatzaileek eta esleipendunek ere, Foru Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko entitateen azpiegitura etikoa sendotzen laguntzen dute era aktiboan, zerbitzu publikoaren ideia eta bokazioa garatzen dituztela eta, era horretara, Gipuzkoako herritarrek administrazioaren, funtzio publikoaren eta erakundearen beraren edo haren parte diren entitateen zuzentasunean duten konfiantza sendotzen dutela.

Kontratazio publikoan zuzentasuna sendotzeak, gainera, kontratazio premia errealak egokiro zehaztea dakar, eta hori herritarren arazoak konpontzeko beharrezko urratsa dugu, baita, ondorioz, konfiantza sortzailea den elementua ere.

1.3.- Kontratazioaren alorrean Kodeak lanbide orientaziorako gida izan behar du foru langile publikoentzat Gipuzkoako gizartearen zerbitzuari dagokionez, horien eginkizunak betetzerakoan profesionaltasuna eta inpartzialtasuna sendotzeko premia ezartzen baitu.

1.4.- Orobat, enpresa eta entitate lizitatzaileek eta kontratuaren esleipendunek errespetatu beharreko betebeharrak zehazten ditu, kontratazio prozesuaren zuzentasunaren onerako eta gizartean gardentasunaren kultura sustatzeko, eta horren bidez prebentzio kultura bat (arrisku esparruak) garatuko da, kontratazio publikoaren prozesua gardentasun handiagoz hornituko da eta kontratazio publikoan lehia handiagoa sustatuko da.

1.5.- Kode hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publiko instituzionaleko Zuzentasun Instituzionaleko Sisteman kokatzen da, eta horren elementu nagusietako bat da.

**2.- Izaera**

2.1.- Kode honek prebentzio eta orientazio izaera du kontratazio publikoaren alorrean zuzendaritza edo lanbide jarduerak gauzatzen dituzten foru kargu publikoen eta langile publikoen jardunbideari dagokionez, eta alor horretan Foru Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko entitateen kultura etikoa hobetzea du helburu bakarra.

2.2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Instituzionaleko Sistemaren garapenean burutu da, eta kontratazioaren printzipio gidariak indartu nahi ditu, bereziki ondoko hauek: tratu berdintasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta zuzentasuna.

2.3- Foru erakundeen azpiegitura etikoak funtsean prebentzio eta hobekuntza izaera duela kontuan izanik, Kode honen izaerak berezko orientazioa axiologikoa du, baita, ezinbestean, foru enplegu publikoaren deontologia profesionaleko marka ere; hortaz, ez du langile publikoei aplikatzekoa litekeen diziplina edukirik, salbu eta, *in fine*, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 52. artikuluan jasotakoak.

2.4.- Langile publiko baten jokabide, portaera edo ez jardute batetik diziplina erantzukizunak edo bestelakoak sortuko balira, Administrazio unitateko arduradunak edo Etika Instituzionaleko Batzordekoak hori jakinaraziko dio eskumena duen organoari, horrek, hala badagokio, diziplina espedienteari hasiera ematea edo ez erabaki dezan.

2.5.- Kode hau nahitaez betebeharrekoa izango da foru enplegatu publiko guztientzat, testu honetan ezarritakoaren arabera.

2.6.- Enpresa eta entitate lizitatzaileei dagokienez, betebeharreko funtsezko obligazio edo baldintza gisa erantsiko da. Horientzat, Kodean aurreikusitako jokabide arauak ez betetzea obligazio zigorgarria da.

**3.- Aplikazio eremua**

Kode honek zehaztu egiten du zein diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kontratazio publikoko prozesuetan parte hartuko duten kargu publikoen eta funtzionarioen eskakizun etikoak eta kudeaketa onekoak, eta era berean horien profesionaltasuna (prestakuntza) sendotzeko eta eginkizunetan inpartzialtasuna bermatzeko beharra ezartzen du.

Enpresa eta entitate lizitatzaileei dagokienez, jarduera esparrua ezarri nahi du kontratazio prozeduraren zuzentasunaren berme gisa, eta nahitaez betebeharrekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko direnentzat eta horien esleipendunentzat.

Zuzentasun Esparru honetan jasotako beharkizunek zeharkako izaera dute kontratazio prozeduraren fase guztietako edozein jarduerari aplikatzekoak direlako.

**4.- Irizpide orokorrak**

4.1.- Kontratazio publikoari buruzko zuzentasun instituzionaleko esparru honek sistema prebentibo bat zehaztea du helburu; sistema horrek zuzentasuna eta interes publikoen lehentasuna ziurtatzearen alde egingo du, kontratazio publikoko prozesuetan azal daitezkeen disfuntzioak, eraginkortasunik eza eta iruzurrak sor ditzaketen beste interes batzuen aurka.

4.2.- Oro har, kontuan hartuko da bai Foru Aldundiko kideen eta goi kargu publikoen eta langile asimilatuen eta haren sektore publikoko entitateen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotakoa, eta bai Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Kode Etiko eta Kudeaketa Onekoan ezarritakoa ere.

4.3.- Foru kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileek ez dute parte hartuko interes pertsonala izango duten inolako kontutan, ezta beren postu publikoarekin interes gatazka planteatzeko arriskua lekarketen inolako jarduera edo interes pribatutan ere.

Hala, ez dute parte hartuko betebehar ekonomikoen kontratazioan, finantza eragiketetan, ondare betebeharretan edo negozio juridikoetan parte hartzeak beren eginkizunen betebeharrekin interes gatazka eragin dezakeenean.

4.4.- Era berean, kargu publikoak eta langileak une orotan, dagozkien eginkizunetan ari direla, inpartzialak izango dira eta objektibotasunik handienaz jardun beharko dute azalduko dituzten iritzietan edo hartuko dituzten erabakietan, eta administrazio onaren printzipioaren arabera jokatzera beharturik izango dira eta adeitasunez eta errespetuz tratatuko dituzte lizitazioaren prozeduran interesaturiko enpresa eta entitate guztiak.

Inpartzialtasun printzipioa gauzatuko da, halako eran non irizpide independentea eta inolako interes partikularrekin loturarik gabe mantenduko den.

Objektibotasun printzipioa ahalik eta bildu litekeen informazio gehiena jasoz gauzatuko da, argitu beharreko gaiari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuz.

## II.- APLIKATU BEHARREKO BALIOAK, PRINTZIPIOAK, JARDUERA ETA JARDUNBIDE ARAUAK

Kargu publikoek eta foru langileek, kontratazioaren alorrean dagozkien eginkizunetan ari direlarik, Kode honetan jasotako balio eta printzipioak errespetatu beharko dituzte beren jokabidea edo portaera betetzen dituzten erantzukizunen ardura izaeraren arabera. Hori guztia Gipuzkoako Foru Administrazioaren eta haren sektore publikoko entitateen Jokabide Kodean eta Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Kode Etiko eta Kudeaketa Onekoan ezarritakoaren osagarri gisa.

Foru Aldundiko langile guztiek, baita enpresa eta kontratu publikoetako entitate lizitatzaile eta esleipendunetako langileek ere, ondoren agertzen diren balio etikoak eta printzipioak errespetatu behar dituzte.

### 1.- Balio etikoak

1.1- Ondoren azaltzen diren balioek foru langile publikoak gidatuko dituzte beren lanbide jarduera guztiak betetzerakoan, eta departamentu, entitate edo Administrazio unitateek erabakiak hartzeko prozesuetan integratu behar dituzte beren foru politiken garapenean eta hartuko diren kudeaketa prozeduretan edo sistemetan.

1.2.- Foru langile publikoek beren eginkizunak betetzerakoan eta bereziki kargu publikoekin, beste langile publikoekin eta herritarrekin izango dituzten harremanetan, balio horiek argudiatu ahal izango dituzte beren lanbide jardueraren arrazoi gisa, eta horien arabera tratatuak izan beharko dira.

1.3.- Kontratu publikoetan balio eta printzipio horiek betetzea, enpresa eta entitate lizitatzaileen eta esleipendunen jardueraren zintzotasun, gardentasun eta zuzentasun bermea da.

1.4.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Zuzentasun Esparruan (Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2016ko martxoaren 1ekoa) izaera orokorrez ezarritako balio etikoetara egokitu behar dute beren lanbide jokabidea kargu publikoek eta foru langile publikoek zein enpresa eta entitate lizitatzaileek ere.

**2.- Printzipioak**

2.1.- Kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileek kontratazio publikoaren alorrean garatzen dituzten jardueren garapenean aplikatu beharreko printzipio gidariak hauek dira: eraginkortasuna gastu publikoan, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza, elkar aitortzea eta, bereziki, gardentasun eta zuzentasun printzipioa.

a) Eraginkortasun printzipioa gastu publikoan. Aldez aurretik kontratazio premiaren neurri egokia zehaztea eskatzen da diru publikoaren erabilera okerra saihestearren eta kontratua benetako premia asetzeko egokia dela bermatzearren. Halako prozesu guztietan eskatzen diren kontratazio txostenak gidatuko ditu printzipio honek.

b) Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza printzipioa. Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza printzipioaren bidez, konparagarriak diren egoerek tratu desberdina ez izatea eta egoera desberdinak berdin ez tratatzea exijitzen da. Kontratazio publikoan parte hartzen duten enpresen artean lehia oso eta eraginkorra garatzea aldeztu nahi da. Eskaintzak azaltzerakoan lizitatzaile guztiek aukera berak izatea exijitu beharra dago, baita eskaintza horiek lehiakide guztientzat baldintza beren mendean egotea ere.

c) Elkarren aitortze printzipioa. Printzipio honen aplikazioaren bidez eskatu beharreko zehaztapen teknikoak beteko dituzten enpresa eta entitate guztien parte hartzea aitortu eta onartu beharra dago. Zehaztapen horiek benetako premiari erantzun beharko diote, konkurrentziaren murrizketa artifizialik egin gabe.

d) Gardentasuna. Gardentasuna kontratazio publikoaren alorrean argitasuna edo anbiguotasunik eza izan daiteke. Publizitate egokia bermatu behar da, litezkeen lizitatzaile guztien onetan, halako eran non zerbitzuen merkatua konkurrentziara zabaltzea eta esleipen prozeduren inpartzialtasuna kontrolatzea ahalbidetuko den.

Bereziki, faboritismoa, inpartzialtasunik eza eta bidegabekeria arriskuak saihestu behar dira; eta aitzitik, lizitazio prozeduraren baldintza eta modalitateak era argi, zehatz eta ezin nahasizkoan azalduak izango dira lizitazio iragarkian edo baldintza agirian. Helburua hauxe da: alde batetik, behar bezala informaturik dauden eta nahiko arretatsuak diren lizitatzaile guztiek zertzelada horien norainokoa zehazki ulertzea eta modu berean interpretatzea eta, bestetik, erakunde esleitzaileak benetan egiaztatu ahal izatea lizitatzaileek aurkezturiko eskaintzek kontratuari aplikatu beharreko irizpideen araberakoak diren.

e) Zuzentasuna. Kontratazio prozeduran parte hartuko duten botere esleitzaileko kideek edo haren izenean arituko den kontratazio zerbitzu hornitzaileko kideek edo prozedura horren emaitzan eragina izan dezaketenek, beren interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala direla eta, kontratazio prozeduraren testuinguruan inpartzialtasuna eta independentzia zuzen edo zeharka konprometiturik daudela uste izateko bidea eman lezakeen edozein egoera prebenitzeko neurri egokiak hartu nahi dira zuzentasun printzipioaren bidez.

Zerbitzu publikoari, administrazio onari eta foru erakundeak sendotzeari dagokienez, funtsezko balioa da zuzentasuna. Izan ere, kargu publiko bakoitzak eta, hala badagokio, langile publiko bakoitzak kontratazio publikoaren esparruan bere lanbidean era zuzenean jardutean, herritarren Foru Administrazioarekiko konfiantza sendotzen da, baita zuzendaritza edo arduradun mailei eta erakundeari berari dagokienez ere. Hala beraz, kargudunaren edo foru langile publikoaren portaera etiko akatsgabeak, kontratazio publikoaren alorrean dagozkion edozein eginkizunetan diharduela bere konpromisoak eta betebeharrak zorrozki betez, duintasuna ematen dio zuzendaritza edo lanbide lanari, goi Administrazioaren irudiari, baita foru lan publikoari ere, eta Gipuzkoako erakundeekiko konfiantza eragiten du jendearengan.

Kontratu publikoetan enpresa eta entitate lizitatzaileei eta kontratuen esleipendunei dagokienez, zuzentasuna bermatu nahi da Administrazioarekiko kontratazioan, baliabide publikoak entitate kontratatzailearen benetako premien arabera erabiliz eta interes publikoaren bermea ziurtatuz, baliabide publikoen eraginkortasuna ziurtatuz, kontratatzailearen benetako beharretara eta interes publikora egokitzen diren heinean, eta kontratuetako adjudikazioan objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatuz.

Arau eta printzipio moral edo etikoekin bat datozen jokabide eta jarduerei dagokie zuzentasuna, pertsonek zein erakundeek bereganatu dituztenak eta ustelkeriaren aurkako hesi baten gisa aritzen direnak.

**3.- Informatzeko betebeharra**

Kontratazio publikoarekin zerikusia duten Foru Aldundiko langileek Foru Aldundiaz kanpoko jarduera ekonomikoez edo lanekoez informatu behar dute beren eginkizunetan ari direla interes gatazka ekarri badezakete.

Kargu publikoei dagokien betebehar hau bidezko jardueren aitorpenean eta, hala badagokio, ondasunen aitorpenean islatuko da.

**4.- Prestakuntza**

Kontratazio publikoarekin zerikusia duten Foru Aldundiko langileek kontratazio publikoaren alorreko arauetan eta jurisprudentzian gertaturiko berritasunak ezagutu behar dituzte, arituko diren kontratazioetan jarduketa arduratsua eta profesionala bermatzearren.

Hori dela eta, aurreikusten den barne prozedura jarraituz, entitate espezializatuek antolaturiko prestakuntza jarduueretara joan ahal izango dira eta, bereziki, Foru Aldundiak bere formakuntza edo jarduera programetan barneratuko dituenetara.

Orobat, berariazko prestakuntza ekintzak gauzatu ahal izango dira kontratazio publikoaren alorrean eginkizunak edo jarduketak gauzatuko dituzten foru kargu publikoentzat.

**5.- Foru kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileen parte hartzea kontratazio prozesuetan**

5.1.- Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, edonolako interes pertsonala izango duten Foru kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileek kontratazio prozesu batean ezin parte hartuko dute kontratuaren diseinuan, ezta kontratazio mahaian egon edo inolako baloraziorik egin ere.

Muga horiek berak exijituko zaizkie kanpoko adituei, halakoak kontratazio mahai batean egongo diren kasuetan.

5.2.- Kontratazio mahaien osaera eta horietako kideen identifikazio zehatza argitara emango da baldintza agiriarekin batera edo lizitazioaren iragarkian kontratatzailearen profilean, non kontratazio mahaian duten kargua azalduko den, baita Foru Aldundian duten kargua ere.

Edozein arrazoi dela bide, hasieran identifikazio hori ezinezkoa gertatuz gero, eskaintzak ireki baino lehen argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

**6.- Konfidentzialtasuna**

Foru kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileek konfidentzialtasuna gorde beharko dute kontratazio espedienteetako datuei dagokienez eta beharrezko diskrezioa mantenduko dute beren karguagatik ezagutuko dituzten kontuez, bereziki prozesuen barne burubideez edo orientazioez, lorturiko informazioaz ezin baliatuko direla ez beren onerako ez besteren mesedetan, edo interes publikoaren kaltetan.

**7.- Opariei uko egitea**

Uko egingo zaio baldintza onuragarrietan enpresa edo entitate batek egiten duen edozein opari, mesede edo zerbitzuri, halakoak ohitura sozialetatik eta adeitasunezkoetatik haragokoak direnean.

Debekaturik dago helbide pertsonala ematea, etxean edozein opari mota jasotzeko.

**8.- Eragina lehentasunezko ordainketan**

Kontratu publikoei dagokien ordainketa erregimena legez ezarritako lehentasunezko hurrenkeraren araberakoa izango da, eta kargu publikoek edo langileek ezin arinduko dituzte, enpresa edo entitateen mesederako izango den pribilegio bat ekarriko dutenean, edo kargu publikoen titularren edo horien familia edo gizarte inguru hurbilekoen mesederako izango denean edo hirugarrenen interesei galera ekarriko dienean.

### 9. Kontratu eskakizunaren betekizuna eta irregulartasunak hautematea

Kontratua behar bezala gauzatzen delako zaintzea beren ardurapean izango duten langileek, kontratuetan hautemango edonolako irregulartasun, kalitate falta eta abarren berri eman beharko du.

### 10. Kontratuen ordainketa eta likidazioa

Kontratuaren ordainketak eta likidazioa egiaztatzeko erantzukizuna izango duten langileek behar bezalako prestasunez jardun beharko dute, eta benetan gauzaturiko kalitateak eta kantitateak islatuko dituzte.

## III. ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA ALDERDI EXOGENOARI DAGOKIONEZ

### A) Alderdi orokorrak eta kontratuaren diseinua

### 1. Nahitaezkotasuna

1.1.- Kode hau betetzeko konpromisoa sinatzea nahitaezko baldintza izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak eragindako edozein kontratazioтan lehiatu ahal izateko.

Betebeharrak bai kontratuei buruz indarrean dagoen araudia hartuko du, bai eta Kode honetan jasotako konpromisoak ere, eta kodea betetzeko ahalegin guztiak egingo dira.

1.2.- Enpresa edo entitate lizitatzaileek, beren aldetik, Kodea betetzeko konpromisoa hartzen dute, baita, kontratazio prozesuaz den bezainbatean, beste enpresek gauzaturiko edozein jarduera irregular edo ez betetzeren berri izango dutenean, horiek dagokien agintariei salatzeko konpromisoa hartu ere.

Zuzentasun Esparru honetan jasotako konpromisoek gauzatze baldintza bereziko izaera dute, hartarako aurreikusitako legezko ondorioekin.

**2. Ondorioak**

Lizitazio prozeduraren edozein fasetan edo kontratua gauzatzerakoan edozein eratako ustelkeria edo lehiaren aurkako jardunbideak aurkituz gero, horren eragilea den entitatearekiko aurkakotasun prozesuari ekin aurretik, uko egingo zaio eskaintzari –lizitazio fasean– edo erruzko kontratu suntsitzeari ekingo zaio, kontratua gauzatzeko fasean.

**3. Interes gatazkarik eza**

Eskaera edo eskaintza aurkezteko unean, enpresa edo entitate lizitatzaileak deklaratu beharko du ez duela inolako interes gatazkarik eta ez duela antzeko erlaziorik bestelako lizitatzaileekin edo proiektuan interesaturiko beste alderdi batzuekin. Kontratua gauzatzeko aldian egoera hori gertatuz gero, titularrak botere esleitzaileari jakinarazi beharko dio.

**4. Lehiatzeko eskubidearen araberako portaera**

4.1.- Enpresa edo entitate lizitatzaileek prozesuan parte hartze lehiakorra izango dutelako konpromisoa hartzen dute, baita horren kontrako edozein jardunbideri uko egitekoa ere.

4.2.- Une orotan inpartzialtasunez eta fede onez jardun beharko dute beren lanbidearen Kode deontologikoaren arabera.

Bereziki, lizitazio baten emaitza faltsutu edo manipulatu nahiz, beste enpresa edo eragile ekonomikoekin akordiorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute. Horrek, gehiegi zehaztu gabe, ondokoak barne hartzen ditu: geroko kontratuaren prezioa aldez aurretik finkatzea helburu izango duen edozein akordio edo beste edozein baldintza komertzial edo merkatua banatzeko akordioak, kontratutik onura handiagoak lortzea helburu dutenak.

4.3.- Era berean, nahita okerrak izango diren edo indarrean dagoen kontratazio publikoaren inguruko legeria errespetatzen ez duen prezio edo merkatuko zehaztapenetan desberdintasun garrantzitsuak izango dituzten eskaintzak aurkeztea saihestuko da.

4.4.- Enpresa edo entitate lizitatzaile batek eskaintza-eskaeren azterketa, argitze, ebaluazio eta konparazio prozedura osoan zehar Kontratazio Mahaiaren gainean presioa egiteko, bultzatzeko, informazio konfidentziala lortzeko edo eragina izateko gauzaturiko ahalegin guztiek bere proposamena edo eskaintza baztertzea izango dute ondorio.

**B) Kontratua prestatzea eta diseinatzea**

**5.- Kontratuak prestatzea eta diseinatzea**

5.1.- Indarrean dagoen araudiaren arabera formalizaturik dauden aldez aurreko merkatuari buruzko kontsultetan parte hartuko dutenean, baita premiak, helburua eta baldintzak, preskripzioak, prezioak, plangintza zehazterakoan edo lizitazioaren prozedura aukeraketan ere, ez dute lehia murrizteko asmorik izango, eta lehiaren existentzia zein lizitatzaile zehatz batentzako abantailarik ez egotea ziurtatu beharko da.

5.2.- Kontratuaren helburua lortzeko premiarik izango ez duten eta lehiaren murrizketa zuzena eragingo duten zehaztapen teknikoak edo eskakizunak eranstearen aldeko jarduerak saihestuko dituzte, eta soil-soilik informazio garrantzitsua eta objektiboa emango diote Foru Administrazioari etorkizuneko kontratuaren diseinuan laguntzeko.

5.3.- Gainbalorazio ekonomikoak edo gutxiegizkoak eskaintzea saihestuko dute.

5.4.- Lizitazioetan lehia murriztera zuzenduriko preskripzioak edo eskakizunak daudela nabarituz gero, berehala jakinaraziko diote kontratazio organoari.

**6. Informaziora eta kudeatzaileengana iristea lizitazio prozeduran zehar**

6.1.- Kontratista eta haren langileak sekretu profesionalaren mende egongo dira kontratuaren iraunaldi osoan eta hura amaitu ondoren ere.

6.2.- Lizitazio batean interesaturiko enpresa edo profesionalak ezin dira harremanetan jarri kargu publikoekin, ezta lizitazioaren arduraduna den botere esleitzailearen

langileekin ere lizitazioaren denboran, salbu eta baldintza agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria lortzeko, kontratazio publikoari buruzko legeriak ezartzen dituen baldintzetan.

**7. Gastu bereziak**

7.1.- Ondoko hauek merkataritza gastu berezitzat hartzen dira: kontratu nagusian aipatzen ez diren komisioak edo kontratu nagusi horrekin zerikusia duen kontratu baliodun batetik ez datozenak, legezko eta benetako zerbitzu bat ordaintzen ez dutenak, zerga paradisu batean ordainduriko komisioak eta garbi identifikaturik ez dagoen onuradun bati edo, itxura guztien arabera, alegiazkoa den enpresa edo entitate bati ordaindurikoak.

7.2.- Eroskeria pizgarri bat eskaintzea, agintzea, onartzea edo exijitzea da kontratuaren esleipenarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzeko edo ez gauzatzeko edota botere esleitzailearekin jadanik izenpeturiko kontratua gauzatzeari dagozkionak. Pizgarri horiek opariak, maileguak, komisioak, ordainsariak edo bestelako abantailak (zergak, zerbitzuak, emaitzak, etab.) izan daitezke.

Horren barnean, agintari edo langile publikoekin bururturiko edozein eroskeria mota ez ezik, edozein eragile ekonomikorekin egindakoa ere sartzen da.

7.3.- Inoiz ez da dirurik eskainiko, eskatuko edo onartuko kontratua lortzeko, kontratuaren bizi zikloaren edozein fasetan.

7.4.- Enpresa edo entitate lizitatzaileak atal honetan ezarritakoa gauzatzeko egingo duen edozein ahaleginek lizitatzaile horren proposamen edo eskaintza baztertzea ekarriko du.

**C) Kontratua gauzatzea**

**8. Kontratua egokiro gauzatzea eta hitzarturiko prezioaren ordainketa**

8.1.-Kontratistak hitzarturikoaren arabera gauzatuko du kontratua, eta xede, kalitate, prezio edo bestelako elementuekin loturiko edozein abusu saihestuko du.

8.2.- Inoiz ez da inolako diru kopururik emango edo ordainketarik egingo "arintzearren", ohiko edo beharrezko ekintza bat ziurtatzeko edo azeleratzeko, delako ordainketa egiten duenak jadanik hartarako eskubidea duenez.

8.3.- Ildo horretako erreklamazioren baten berri izango lukeen enpresa edo entitateak botere esleitzaileari jakinaraziko dio.

**9. Azpikontratazioa**

9.1.- Aplikatzekoak diren legezko aurreikuspenak alde batera utzi gabe, kontratistak kontratua gauzatzen hastean bere azpikontratistei buruzko informazio zehatza jakinarazi beharko du aldi berean (azpikontratatzeko partea, identitatea, harremanetarako datuak, azpikontratistaren legezko ordezkaria edo ordezkariak, azpikontratisten gaitasunaren justifikazio egokia eta kontratatzeko debekua ez duelako akreditazioa).

9.2.- Kontratazio organoaren eskariz, azpikontratistarekin izenpeturiko kontratuaren kopia eta ordainketaren justifikazioa ekarri beharko ditu, gauzaturiko prestazioen identifikazio zehatzarekin.

9.3.- Inoiz ez da azpikontratazioaz baliatu ahal izango kolusio edo lehiaren aurkako praktikak gauzatzeko.

9.4.- Azpikontrataturiko enpresa Kode honen edukiaz informatua izango da, baita horren nahitaez betebeharreko izaeraz ere.

**10.- Kontratuaren aldaketa irregularra**

Kontratua legez aurreikusiriko kasuetan soilik aldatu ahal izango da. Egin ez diren lanen fakturazioan irregulartasunak aurkituz gero edo, kontratuaren aldaketa hitzartu gabe, kontratatuetatik desberdinak badira, dagozkien zigorrak ezarriko dira, kontratuaren arduradunak diren langile publikoei ezartzekoak diren betebehar ekonomikoak alde batera utzi gabe.

**D) Kontrola eta zigorra**

**11.- Barne kontrola**

11.1.- Oro har, Foru Administrazioaren departamentuetako Idazkaritza Teknikoek berek kontrolatuko dute azalduriko konpromiso horiek betetzen ote diren.

11.2.- Enpresa edo entitate esleipendunek eta botere esleitzaileak onartu egiten dute zuzen edo zeharka kontratuarekin zerikusia duen eta eska lezaketen edozein informazio eta dokumentaziotara iristea eta horiek eskura jartzea, konfidentziala kalifikatzen dena salbu. Hori entregatzeari uko egitea falta oso larritzat hartuko da eta are kontratua deuseztatzea ekar lezake.

**12. Kontratuaren kudeaketari buruzko informazioa**

12.1.- Kontratistak, botere esleitzailearen eskariz, kontratua gauzatzeko baldintzak egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak aurkezteko konpromisoa hartuko du.

12.2.- Enpresa edo entitate lizitatzaileek kontrol guztiak, dokumentalak edo *in situ* egitekoak, onartzen dituzte, ohiz kanpoko merkataritza gastuak (gastu bereziak) edo bestelako praktikak, lehiaren aurkakoak edo ustelkeria, izan direlako susmoa berretsiko duten frogak biltzeko beharrezkotzat joko direnean.

Bereziki era horretara jardungo da arrisku edo iruzur jarduketak izan daitezkeelako susmoak daudenean, ofizioz edo informazioren bat dagoenean.

12.3.- Edozein iturritatik lorturiko informazioak onartuko dira, baldin eta Foru Administrazioaren kontratu publiko batean konpromiso horiek hautsi direla agerian jartzea asmoa badago.

Salaketa anonimoak onartuko dira, eta horiek Etika Instituzionaleko Batzordearekin harremanetan jartzeko ezarritako kanalen bidez hartuko dira.

Salaketak anonimoak ez balira, horien egileari erantzun beharko zaio, jarduketen sekretua alde batera utzi gabe. Bereziki, jakinarazi behar zaio ikerketa espediente bat ireki den edo ez, baita, hala badagokio, azkenean jarri diren zigorren berri eman ere.

**13. Zigorra**

13.1.- Kode honetan jasotako edozein konpromiso ez betetzeak, dela zigor larri bat ezartzea ekarriko du, larritasunaren arabera kontratuaren % 10eraino irits daitekeena, BEZik gabe, dela kontratua deuseztatzea, larritasunak hala eskatzen duenean eta tartean doloa, errua edo zabarkeria izango balitz. Hori kontratazio debekua deklaratzeko espedientearen tramitazio bereziaren posibilitatea alde batera utzi gabe.

13.2.- Zigor horiek kontratuzkoak dira eta, horrenbestez, ez dituzte baztertzen edo ordezten, inola ere, legez ezarritako zigor penalak, zibilak, diziplinarioak edo administratiboak.

## IV. BERME SISTEMA

1.- Kargu publikoek eta foru langile publikoek plantea ditzaketen etika kontuak, arazoak edo dilemak tramitatzeko prozedurak, kanalak edo bideak ezarriko ditu Foru Administrazioak, baita, hala badagokio, herritarrek, langile publikoek berek edo enpresek kode honetan jasotako balio, printzipio edo arauetako batzuk ez betetzeari buruz plantea ditzaketen kexak tramitatzeko ere.

2.- Gehienbat, prozedura, kanal edo bide horiek bitarteko elektronikoak erabiliz bideratuko dira, eta derrigorrezkoa izango dira bitarteko elektronikoak erabiltzea urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluak zerrendatzen dituenentzat.

3.- Etika kontuak, kontsultak, dilemak edo arazoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Etika Batzorde Instituzionalaren aurrean planteatuko dira. Horiek ebazteko, kontratazio publikoaren alorrekoak badira, Etika Batzorde Instituzionalak txostena eska diezaieke alor horretan espezialista izango diren barne zein kanpoko aholkulariei.

4.- Egoki iritziz gero, tratatu beharreko objektuaren minberatasuna kontuan izanik, etika kontuak, kontsultak, dilemak edo arazoak izaera konfidentzialekotzat har daitezke.

5.- Kode honetan jasotako balio, printzipio eta arauak ez betetzearekin edo betetze desegokiarekin zerikusia izanik, planteatuko diren kexak, ezinbestean, idatziz tramitatuko dira Etika Batzorde Instituzionalaren aurrean, eta horrek bide beretik erantzungo du behar bezala arrazoituz. Hartarako, jadanik badauden bitartekoak

erabiliko dira Etika Batzorde Instituzionalarekin harremanetan jartzeko. Izenik gabeko kexa balitz, Batzordeak bidezkoak izango diren neurriak hartuko ditu tramitazioari ekiteko edo hura artxibatzeko.

6.- Ahoz egindako edozein kontsultaren edukia idatziz jasota geratuko da espresuki, bere kasuan eskaturiko konfidentzialtasuna gordetzea alde batera utzi gabe.

7.- Kexak ondorio penalak edo zigortzaileak izan ditzakeenean, Etika Batzorde Instituzionalak kexa azaldu duenaren anonimatua bermatuko du eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, beharrezko neurriak hartuko ditu kexa aurkeztu duen pertsona babesteko.

8.- Kontuak, kontsultak, arazoak edo dilemak, baita kexak ere, planteatzearen ondorioz, Etika Batzorde Instituzionalak eman dituen gomendio, proposamen edo txosten guztiak zabalduko ditu, baina izenik eman gabe betiere, haietan azalduriko datu pertsonalak aldez aurretik bereizirik.

## V.- KODEAREN GARAPENA EBALUATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA

1.- Etika Batzorde Instituzionalak gauzatuko ditu Kodearen garapenaren ebaluazioa eta jarraipena, bertan ezarritako edukiak aldatzeko proposamenak eta prestakuntza programa edo ekintzetarako proposamenak dakartzan guztiari dagokionez, baita Kode horren aplikazioaren urteko emaitzak ebaluatzeaz den bezainbatean ere.

# ANEXO I: CÓDIGO DE CONDUCTA Y MARCO DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL APLICABLE A LA CONTRATACIÓN PÚBLICA

## I.- OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO DE APLICACIÓN Y CRITERIOS DE CARÁCTER GENERAL

### 1.- Objeto

1.1.- El presente Código establece los valores éticos y normas de conducta, así como los principios de buena gestión y normas de actuación profesional, que deben presidir las actuaciones en materia de contratación pública, tanto de los cargos públicos y empleadas y empleados públicos forales en todas aquellas actividades profesionales relacionadas con el ejercicio de sus funciones, como de las empresas y entidades licitadoras intervinientes en los procedimientos de contratación.

1.2.- Con el cumplimiento responsable de tales valores, principios y normas, los cargos y empleadas y empleados públicos forales, así como las empresas y entidades licitadoras y adjudicatarias, contribuyen activamente al fortalecimiento de la infraestructura ética de la Administración Foral y de las entidades de su sector público institucional, desarrollando la idea y vocación de servicio público y reforzando de ese modo la confianza que la ciudadanía guipuzcoana tiene en la integridad de la Administración, de la función pública y de la propia institución o entidades de la que forma parte.

Reforzar la integridad en la contratación pública supone además definir adecuadamente las necesidades reales de contratación, paso necesario para resolver los problemas de la ciudadanía y, en consecuencia, elemento generador de confianza.

1.3.-El Código ha de servir como guía de orientación profesional en materia de contratación del funcionariado público foral en el servicio a la sociedad guipuzcoana, estableciendo la necesidad de reforzamiento de su profesionalidad y de las garantías de imparcialidad en el ejercicio de sus funciones.

1.4.- Asimismo, define las obligaciones que las empresas y entidades licitadoras y adjudicatarias del contrato deben respetar en aras a la integridad del proceso de contratación pública y el fomento de la cultura de la transparencia en la sociedad,

desarrollando con ello una cultura de prevención (marcos de riesgo) en la materia y dotando de una mayor transparencia al proceso de contratación pública, así como promoviendo una mayor competencia en la contratación pública.

1.5.- Este Código se inserta, como uno de sus elementos centrales, en el Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las entidades de su sector público institucional.

**2.- Naturaleza**

2.1.- El presente Código tiene carácter preventivo y orientador de la actividad de los cargos públicos y empleadas y empleados públicos forales que desplieguen sus actividades directivas o profesionales sobre el ámbito de la contratación pública, y está destinado exclusivamente a mejorar la cultura ética de la Administración Foral y de sus entidades del sector público institucional en esa materia.

2.2.- Se elabora en desarrollo del Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y, pretende reforzar los principios rectores de la contratación pública y especialmente, los principios de igualdad de trato, transparencia, eficiencia e integridad.

2.3- Dado el carácter esencialmente preventivo y de mejora de la infraestructura ética de las organizaciones forales, el presente Código tiene una orientación propia de carácter axiológico y una necesaria impronta de deontología profesional del empleo público foral, por lo que carece de contenido disciplinario aplicable a las y los empleados públicos, con las salvedades establecidas en el artículo 52 *in fine* del Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP).

2.4.- En caso de que de una conducta, comportamiento o inacción de un empleada o empleado público se pudieran derivar responsabilidades disciplinarias o de otro tipo, por parte del responsable de la unidad administrativa o de la Comisión de Ética Institucional se dará traslado de la cuestión al órgano competente para que, en su caso, evalúe si procede o no la incoación del pertinente expediente disciplinario.

2.5.- Este Código será de obligado cumplimiento por parte de todas y todos los empleados públicos forales en los términos establecidos en el presente texto.

2.6.- En lo que se refiere a las empresas y entidades licitadoras se incardinará como una obligación o condición esencial de obligado cumplimiento. Para éstas el

incumplimiento de las normas de conducta que se prevén en el Código constituye una obligación sancionable.

**3.- Ámbito de aplicación**

El presente Código define cuáles son las exigencias éticas y de buena gestión de la Administración Foral de Gipuzkoa, de los cargos públicos y de los funcionarios y funcionarias que participen en los procesos de contratación pública, así como establece la necesidad de reforzamiento de su profesionalidad (formación) y de las garantías de imparcialidad en el ejercicio de sus funciones.

